

## Kolonia-ko Katedralera

Egia esango badut, ez nion batere sinpatiarik sentitzen Kolonia-ko Katedralari. Eskolan ikasi bear izan ditugun edertasun konsagratuetakoa zalako, bearbada. Gaifera, alakoak ikustean motroilloan ibilli bear izan oi da. eta orduan geiago gustatzen zait kuriosoan kurioso izan, besterik ezer baiño.

Kolonia-ko Katedrala sinbolo guzti bat da. Emengo edertasunez mintzatzean be-realaxe botatzen dizute rheindarrak arro arro, errege-pavoak bezalaxe irribarrez erakutsiz, galdera: eta Kolonia-ko Katedrala? Eta orduan alako kilima goxo baten axkurea sentierazten du kolkoan, deskuidoan bezala erantzuteak: be!, ez dago gaizki, poliki imitatu dituzte Frantzia-ko gotikoak... (Asko daki batek egia ote dan!) Eta rheindarrak, beroak izan arren ez baitira asarrekor, naiago izaten du ixil ixilik zerbezari trago bat eman, nik parrre egiten dudan artean.

Euri langarra ari zuen Kolonia-rako autopista artu genuenean. Nire adiskide Bitor-ek ederki kantatzen

ditu euskal kantak. Ez da alferrik bermeotarra, etzaio umorerik falta.

Kasi ez genitula ikusi ere egiten esango nuke nunaiko batzarretan jarrita dauzkagun oharrak: kontuz, irrismetaleku; kontuz, arriskuko errebueltak; kontuz... Ikusi genuen alare gure kantua bapatean ito zuen beste ohar bat: Münster-Kolonia-rako 114 klm.'an, fabrika baten teillatuan, letra beltz nabar nabarmenez idatzita: "gizon illa zera Jesus gabe". Ke tzar nahastu bat zerion xirimiripean fabrikako tximiriak.

Iñun baiño geiago ikusten dira Alemania-ko bideetan olako deiak. Etxe baratzeetan, zelaietan, bide baztarretan, arbolapeetan ikusi dut makiña bat gurutze edo Andra Mari-ren irudi. Eta sarritan an dauzkate aldameanean beren olio-katillutxoak edo kandelak argitan. Edo lorak. Baita, noizean noiz, letrazko deiak ere, goian esana bezalakoak edo Hamburg inguruetan aurkitu nuenaren antzekoak: "Ba da Jaungoikoa".

Ondorenik gabeko metodoak direla esan du norbai-

tek. Eta fedez ez dagola propaganda egiterik ere esan da, fede personal baten ukazioa omen baita propaganda. Beste bein esaten zidan ikasle batek oek eta Aita Leppich erraminta berdiñak direla eta ez duela ulertzen nola Elizak ez dituen debekatu.

Pakean utz gaitzate la naiago genduke. Ez da gusto onekoa, agian, Jesus gabe illak gerala irakurri bear izatea Jainkoak daki zertara autopista aurrera goazenean. Ez da gusto onekoa A. Leppich-ek ainbeste ta ainbeste goserik il-tzen direla beti berriro ta berriro gogoratzea...

Ez du konprenitzen. Eta benetakoak dirudite ematen dizkiguten arrazoiak. Alare. A. Leppich-ek pobre askori ematen diola mun lanegin eta zer jan ikusten duzu. Eta au da gaurko metodo egokiena, bakarria ez bada beintzat, predikatzeko. Bestetik deiak, niri beifipein eta nire antzekoak uste ditut besteak, etzaizkit akordatu gabe pasatu. Dena dela, profetek ziotenaren kontra, azkeneko urtean ez du katolizismoak Alemani-an pauso bakarrik atzera egin eta bai irabazi ederrik. Jakiña, dato gorriak ez duela ezer probatzen erasiko dizute ta interpretatu egin bear direla. Niri, ordea, A. Leppich-i eskerrak India-n edo Afrika-n lana ta jana billatu dituenaren interpretazioa interesatuko litzaidake, ze ez dut poz pixka bat



Notre  
-Dame  
Parisko  
Katedral  
famatua  
gotiko  
uts  
garbia.



billatu duen gizona bezela-ko teologiarik ezagutzen.

Eta Kolonia-n gaude, Katedral sonatuaren aurrez aurre. Gogoan dut oraindik lehenengo bider Kolonia-ra eldu nintzanean —ordu erdi eskaseko itxaroadia— estazio irtekeran nola jaun bati galdetu nion: zein aldetan da Katedrala? Ta berak, irribarrez: baiña ez al duzu ikusten ba? Estazioaren aurre aurrean dago, izan ere, munstro gotiko zoragarria.

Antxinako germanoek eta aien ondoren erromatarrek muñño au kulto leku izan zuten. Karlos Aundiak Kolonia-ko Arzapezpikuari eman zion. Eta 814-an ba omen zuen muñño onek bere Katedrala, romanikoa noski, Frantzia-tik sartu baita inguru oetan gotikoa. Friderik Barbarossa kaiserrak (“bizar loretsuko” ta “bizar gorriko” kaiserrek oñarritzen dute Katedral onen kondaira, ikusten danez) Milan menderatu zuenean bere Kanzeler Reinald von Dassel Kolonia-ko Arzapezpikuari eskuetaratu zizkion Iru Erregeen erlekiak. Amaika erleki lapurtzen zaan

orduan ba. Ez debozio utsez agian, peregrinazio leku izateak orain ez bezalako signifkazioa zuelako ere baizik orduko ekonomiarentzat. Eta bixtan dago Meister Gerhard-en arkitektura au mañña bat kostata egñña dala. Amerikano batek galdetzen omen zuen: zenbait urtetan jaso zan au? Eta jarraitu omen zuen: lau illabete naito ditugu Amerika-n... Baiña egiazko Katedral Kolonia-koa 552 urteko neke luzea dezu. Ainbeste neke eraikitzeke, ordu gutxitako bonbardeoa aski izan zuen behera etortzeko.

1945-eko martxoaren 6-an alemanak Kolonia aliaduen eskuetan abandonatu zutenean, Komando Nagusiak onela agertzen zuen: “Kolonia-ko kixkalondakiñak etsaiari utzi zaizkio”. Alemania-ko batasunaren Katedrala txiki txikituta zegoan, ankaz gora.

Buelta bat eman diogu Katedralari inguruan. Nork esan 30 urte dala au guztia arri pilla utsa zanik. Gaur galanta dago, sendo, gotikoaren barroko au. Ain aundi ta detaillez josi, karga bat bezala da begien gai-

ñean.

Ederki berritua dago Erdi Aro-ko Katedrala. Nork berritu, ordea, orduko fedea? Lan zaillago bat, umillago bat, bearko litzake. Fedea ez baita sermoietako garraiekkin, ez armekin, ez arkitektura berriekin ere, eta ezta ere Konzilioekin, naikoa zaintzen. Kristautasuna biaz, maitasuna egiztuaz, obrekin bakarrik baizik. Baiña geu gera, “gizon illa gera Jesus gabe” ori ulertu ez dugun lehenengoak-eta! Orduan errezago da nolana ere fedearen egia obrekin probatzea baiño suarekin eta gerrarekin defenditzea.

—Barrura joango al gera, Bitor? —Sarrera bikain irudiz bete ondotik miresten gelditu gera momentu bat. Tente dago San Migel goaingerua, eskutuan “Quis ut Deus” eta eskubian lantza gordiña beti pronto dakarrela. Armaturik, Baiña bonbaren batek puskatua noski, Jainkoaren defenditzaille armatuak, Kolonia-ko Katedralaren oesteko atean ez dauka bururik.

Jose Azurmendi.